



Vista general de la Torre Central, Torre Norte y Cerro Peineta.

Aproximación a la cara Oeste de la Torre Central.

“KANTERARIK EZ”

Una nueva vía en la Torre Central del Paine

JON LAZKANO

URTARRILAK 27, arratsaldeko zazpirak dira eta heldu da azken momentua. Gailurrera heltzeko largo bat falta zaigu, oso zaila ematen du baina tontorraren proximitateak ematen duen indarrarekin azkar menperatuko dugu. Gailurreko momentuak isiltasun eta magia betetakoak dira, gainera sekulako eguzkia egiten du eta honek lasaitasun punto bat ematen digu. Ez daukagu inongo prisarik jeisteko baina poliki poliki gauaren iluntasuna badator eta jeitsi beharra daukagu.

Hau da bi hilabete aurrerago hasitako historia baten bukaera. Eskalada hau aurreko udaran planeatzen hasi ginen. Momentu haietan Trangoko dorreak eskalatzen geunden, beno eskalatzen eta telebistarentzako filmaketa bat egiten. Bertan nahiko nekatuta bukatu genuen bai filmaketagaitik eta baita ere Pakistanen espedizio bat antolatzeak suposatzen duen burokraziagaitik. Honela ba, pentsatu genuen gure hurrengo irteera aspektu hauetan arinagoa izan behar zela. Gillermok eta neuk gauza bera pentsatu genuen: Patagonia.


Baina Patagonian zein aldetara joan gaitzake? Zeren eta bi urte lehenago Fitz Roy aldean egon ginen eta nahiz eta tokia zoragarria izan dena jendez beterik zegoen eta ez zitzaigun hain atsegina iruditu.



3.ª reunión. La pared ya se pone vertical.



6.ª reunión. ▶



Paine Orratzak

Bai hori da, Paine orratzetara gara. Izugarriko paretak daude eta oraindik jende gutxi dago.

Hilabete batzuk pasa dira eta dena prest daukagu. Sekulako material pila batekin goaz zeren eta azken momentuan Paine orratzetako Torren Zentralean bide berri bat irekitzea pentsatu dugu. Beraz soka pila bat hiltzeak, friend pila bat eta denetarikoz gauza asko daramagu.

Gure lagunekin Atxarten pasatzen degun azken eguna nahiko tristea da. Atxarte dena ertzainez beteta dago, ezin da eskalatu, baina txarrena da, noski, kantera zikin hauek aurrera doazela. Beti bezala dirua eta politika den denaren ginetik dago.

Abenduak 5ean irten gara etxetik eta bi egunetan Puerto Natalesen gaude (Chile). Bertan janari erosketa denak egingo ditugu mendian bi hilabete egoteko.

Puerto Natales oso herri polita eta lasaia da. Bertan oso ondo eta merke jaten da eta gainera jendea oso atsegina da.

Bertan autobus bat hartu eta Parque Nacional Torres del Painerantz abiatuko gara. Ehun eta hogei bat kilometro egin ondoren, autobusak parkearen sarrean uzten gaitu eta bertatik basora oinez joan behar gara.

Basora karga guztiak zaldiz igo ditzakegu eta horretarako bertako «gautxo» batekin hitzegtzen dugu, ez dago inongo problemarik baina bi edo hiru egun beharko ditu lan hau egiteko.


Ondo iruditzen zaigu baina gure buruan kezka bat daukagu. Patagonian gaude eta giroa ez da oso txarra, eta gure aurreko esperientziak dio Patagonian ez dela inoiz sibilidade bat galdu behar. Beraz bi motxila arin prestatuko dugu eta arratsalde berean Torre Norterantz abiatuko gara. Gaua basoan pasa ondoren Torre Norteren gailurrean gaude. Benetan zoragarria, oraindik Bilbotik irten ginetik ez da astebete pasa eta dagoenako torre bat eskalatu dugu. Berriz basora itzuliko gara guztiz nekatuta

azken egunetako mugimenduagaitik baina oso pozik.

Hurrengo egunean helduko da gautxoa bere zaldiekin. Berak ekarriko ditu gure karga guztiak eta honela basoan istalatuko gara. Bertan segituan hasiko gara jendea ezagutzen. Gure kanpamenduan bakarrik bost aleman daude eta aurrerago dagoen beste kanpamendu batean amerikar batzuk eta yugoslaviar batzuk, inor gehiago. Hau zoragarria da!

Basoan gauza guztiakin istalatuta gauden momentutik aurrera gure hurrengo eskalada planifikatzen hasiko gara. Gure asmoa da Torre Zentralean bide berri bat irekitzea. Asmoa bakarrik da zeren eta benetan oso zaila ikusten dugu batez ere bi pertsonendako lan izugarria delako, baina probatzeagatik ez da ezer galtzen.

Torre Norte eskalatu genuen bitartean Torre Zentralean fisura sistema on bat ikusi genuen eta bertatik intentatzea erabakiko dugu.



Diedro perfecto del largo número 10.



Bide berri bat

Torre Norte egun batean eskalatzea posible bada ere, Torre Zentralean bide berri bat egun batean zabaltzea guztiz ezinezkoa da. Torre hau askoz ere lezeagoa eta zailagoa da, bertan soka fijo asko ipini behar da eskalatzeko posibilitate minimo bat edukitzeko.


Beraz gure lehen lana soka guztiak porteatzea izango da. Giroa txarra denez porteo hauek gustora egingo ditugu, nahiz eta oso astunak izan. Basotik mendi azpira bost ordutako ibilaldia daukagu. Hasieran oso polita bada ere azkenerako guztiz aspergarria izango da. Egun gutxitan ekipo dena mendi azpian daukagu, bakarrik giro ona falta da eskalada hasteko.

Patagonian giro ona egiten du baina noizean behin, beraz itxaroten ere jakin behar da. Hamar egun pasa dira eta denbora txarra jarraitzen du, beraz bide berriari hasiera ematea pentsatzen dugu nahiz eta txarra egin. Egun osoa beharko dugu ehun metro eskalatzeko baina pozik jeitsiko gara.

Lehen kontaktu honetan ikusiko duguna da harria nahiko puskatuta dagoela eta bidea pentsatutakoa baino zailagoa izango dela, baina ez gara desanimatu behar, hasi besterik ez gara egin eta.

Beraz erabiliko dugun teknika izango da ahalik eta aldi gehienetan paretara igotzea posibilitate gehiago edukitzeko. Bitartean denbora basoan pasatuko dugu irakurtzen, musika entzuten eta alemanekin hitz egiten.


Hilabete bat pasatu da eta pareta erdia eskalatu dugu baina Guillermo etxera joan behar da, dena dela egun batzutura Kike eta Ramon helduko dira eta hirurok jarraituko dugu bide berriarekin. Kike eta Ramonek egun eta erdiko giro ona ekarriko dute, beraz bultzada gogorra emango diogu eskaladari. Jadanik dena prest daukagu gailurra intentatzeko baina honetarako bai behar dugu benetako giro ona.



Fotos del autor.

Largo 13, uno de los más difíciles de la vía.

◀ **Vista general de la vertiente Este de la Torre Sur (izq.), Torre Central (centro) y Torre Norte (derecha).**



Largo 10.

Arratsaldea lasaia gelditu da, ni urduri naiz, beharbada giro ona dator. Hogeitamar ordu geroago dena bukatu da. Kike eta ni la-sai heltzen gara basora gailurretik buelta.

Bide hau kanteraren aurka borrokan ibili diren guztiei dedikatzen diogu. ■

FICHA TECNICA

Actividad realizada:


Torre Norte (2.600 m)

El 9 de diciembre escalamos la Torre Norte del Paine por su vía italiana. La escalada fue realizada en 14 horas desde el bosque. La escalada está compuesta por unos 2 ó 3 largos de escalada mixta y unos diez largos de escalada en roca de mediana dificultad. Para acceder a la escalada hay que subir por un corredor de nieve y hielo, de unos mil metros, que no ofrece dificultades. El tiempo durante la escalada fue mediocre. Escalada realizada por JON LAZKANO y GUILLERMO BAÑALES.

Torre Central (2.800 m)

El 27 de enero alcanzamos su cumbre después de trazar una ruta nueva en su cara Oeste. La ruta se llama **KANTERARIK EZ** y tiene una dificultad global de 6c/A3, 900m. Utilizamos 700m de cuerda fija para abrir la vía y abundante material técnico. Empleamos en total unos 45 días de trabajo, teniendo durante este tiempo 2 ó 3 días de buen tiempo. La mayor parte de la escalada transcurre por fisuras y diédros muy cerrados, haciendo que la escalada sea bastante lenta a tramos. La ruta ya había sido intentada por un grupo japonés en el 88 y uno italiano en el 89/90. La mitad de la ruta fue abierta junto a GUILLERMO BAÑALES y el resto junto a RAMON PORTILLA y KIKE DE PABLOS, si bien la cumbre fue alcanzada por KIKE DE PABLOS y JON LAZKANO. Para acceder al comienzo de la ruta hay que subir por un corredor de nieve, de unos 300 metros, que no ofrece dificultades si se encuentra en buenas condiciones.

CROQUIS DEL NUEVO ITINERARIO A LA TORRE CENTRAL DEL PAINE (PATAGONIA)



Torre Norte (izq.) y Torre Central por sus caras Oeste.

